

## 2025eko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoaren aldean, esportazioen prezioek % 0,5 egin dute gora Euskal AEn

### *Inportazioen prezioek % 0,7 egin zuten gora*

Eustaten datuen arabera, 2025eko lehen hiruhilekoan **esportazioen** prezioek % 0,5eko igoera izan dute aurreko hiruhilekoaren aldean. 2024ko hiruhileko berarekin alderatuz gero, prezioak % 1,3 igo dira.

**Inportazioen** prezioek hazkunde-eredu bati eusten diote: prezioak % 0,7 igo dira 2024ko laugarren hiruhilekoaren aldean eta % 0,5 urte artean.

**Esportazio** "energetikoen" prezioek % 2,3 egin dute behera aurreko hiruhilekoaren aldean, eta "ez-energetikoenek" % 0,6 egin dute gora. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, ondasun "energetikoen" prezioek % 4,4 egin dute behera eta "ez-energetikoenek" % 1,5 egin dute gora.

**Inportazioen** kasuan, produktu "energetikoen" prezioen indizea % 4,4 jaitsi zen urte arteko tasan, baina aurreko hiruhilekoaren aldean, % 4,5 hazi zen. Ondasun "ez-energetikoen", aldiz, % 2,5eko igoera izan zuten urte arteko tasan eta % 1,2 jaitsi ziren hiruhileko arteko alderaketan.

## Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, helburu ekonomikoaren arabera (%). 2025/I

|                             | ESPORTAZIOAK |            | INPORTAZIOAK |            |
|-----------------------------|--------------|------------|--------------|------------|
|                             | t/t-1        | t/t-4      | t/t-1        | t/t-4      |
| <b>Indize orokorra</b>      | <b>0,5</b>   | <b>1,3</b> | <b>0,7</b>   | <b>0,5</b> |
| Energiazko gaiak            | -2,3         | -4,4       | 4,5          | -4,4       |
| Energiazkoak ez diren gaiak | 0,6          | 1,5        | -1,2         | 2,5        |
| Kontsumo-ondasunak          | 3,6          | 3,8        | -2,7         | 0,9        |
| Kapital-ondasunak           | -2,5         | 0,3        | -5,2         | -0,9       |
| Bitarteko ondasunak         | 0,5          | 0,7        | 1,7          | 0,6        |

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean

(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean

Data 2025eko Martxoaren 27a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak

**Xede ekonomikoaren** arabera sailkapenari dagokionez, **esportazioen** prezioek, 2024ko laugarren hiruhilekoaren aldean, beherakada izan zuten Kapital-ondasunetan (-% 2,5) eta igoera, berriz, Kontsumo-ondasunetan (% 3,6) eta Bitarteko ondasunetan (% 0,5). Aurreko urtearen aldean, joera goranzkoa izan da Kapital-ondasunetan (% 0,3), Bitarteko ondasunetan (% 0,7) eta Kontsumo-ondasunetan (% 3,8).

**Inportazioen** kasuan, Kontsumo-ondasunek (-% 2,7) eta Kapital-ondasunek (-% 5,2) atzera egin dute aurreko hiruhilekoaren aldean; Bitarteko ondasunek, ordea, % 1,7 egin dute gora. Urte artean, gora egin dute Kontsumo-ondasunek (% 0,9) eta Bitarteko ondasunek (% 0,6), baina moteldu egin dira Kapital-ondasunak (-% 0,9).

**Esportazioak** zer **ekonomia-eremutara** bideratzen diren kontuan hartuta, prezioek goranzko joera erakusten dute ELGAn (% 0,5) eta Munduko gainerako herrialdeetan (% 0,4) 2024ko laugarren hiruhilekoaren aldean. Kontrako joera dago, aldiz, EBn (-% 0,1) eta Eurogunean (-% 0,7).

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, prezioen hazkundera orokorra izan da eta nabarmentzekoak dira EB (% 2,1) eta Eurogunea (% 1,8).

## Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, arlo ekonomikoen arabera (%). 2025/I

|                 | ESPORTAZIOAK |       | INPORTAZIOAK |       |
|-----------------|--------------|-------|--------------|-------|
|                 | t/t-1        | t/t-4 | t/t-1        | t/t-4 |
| Indize orokorra | 0,5          | 1,3   | 0,7          | 0,5   |
| Euro eremua     | -0,7         | 1,8   | 0,9          | 1,6   |
| EB-28           | -0,1         | 2,1   | 1,5          | 3,2   |
| ELGE            | 0,5          | 1,5   | 0,6          | 2,2   |
| Munduko besteak | 0,4          | 0,3   | 1,3          | -3,1  |

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean


(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean

Data 2025eko Martxoaren 27a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak

**Inportazioei** dagokienez, ekonomia-eremu guztietan eta denborazko konparazio guztietan gora egin dute prezioek, Munduko gainerako herrialdeetan izan ezik. Kasu horretan prezioek % 3,1eko jaitsiera izan dute aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

## Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

### Informazio gehiago:

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel: 945 01 75 62*